

3/2010 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, familia egoera baloratzeko prozedura eta baremoa arautzen dituena, adinekoak, ezgaitasuna duten pertsk, adimen-eritasuna dutenak eta gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsk artatzera zuzendutako egoitzetako plazak eskuratze aldera.

(2010eko 22. NAO n argitaratua, otsailaren 17an)

I. ERANSKINA. BALORAZIO SOZIALAREN ESKALA

1. Egoera soziofamiliarra.

1.1. Bizikidetzako pertsona bizi da (bat hautatu):

Familia zuzenarekin, modu egonkorrean	5
Egoitzan, modu egonkorrean	5
Bakarrik, baina arduratzen diren senideak baditu.	8
Barneko etxe-zerbitzariarekin eta jasotzen duen arreta gainbegiratzen duten senideak baditu.	8
Bakarrik, baina arduratzen diren senideak baditu.	12
2. edo 3. graduako senideekin eta/edo senideak ez direnekin, edo legezko harreran	12
Familiarekin, txandaka	12
Senide adinduekin	12
Barneko etxe-zerbitzariarekin eta jasotzen duen arreta gainbegiratzeko seniderik gabe	15
Bakarrik eta ez dauka bere arretaz arduratzen den senide zuzenik edo bestelako pertsonarik, ezta zaintzailerik ere	15
Mendekotasuna edo muga funtzionala edo soziala duten senideekin	15
Bakarrik, familia zuzenik ez dauka edo gainbegiralerik ez du onartzen	15

1.2. Harremanak eta dinamika (bat hautatu):

Bizikidetzako unitatean integratzea/onartzea	5
Bizilekua txandakatzen du, onartzen dute eta zainketak zuzen banatzen dira	8
Harremanak ditu noiz edo noiz	8
Familiako bizitza neurri batean baldintzatzen duen harremana	8
Bizikidetzako arazoak noiz edo noiz	8
Bizilekua txandakatzen du, baina ez dute onartzen edo zainketak ez dira zuzen banatzen	12
Bizikidetzan adostasun falta eragiten duten arrisku faktoreak daude.	12
Familiako bizitza modu moderatuan baldintzatzen duen harremana	12
Harreman gatazkatsua gainerako bizikideekin.	12
Arreta zaintzaile nagusi bakar batek ematen du.	12
Babesgabetasun presuntzioa	15
Portaera aldaketa arriskutsuak eta/edo familia gune batean bizitzea ezinezkoa egiten dutenak	15
Desegituraketa larria familia gunean, zeinak arretari eragiten dion	15
Harremanik ez dauka, ezta sare informalk ere	15

1.3. Zaintzailearekin (zaintzailearen ezaugarriak, atal bakoitzean bat hautatu):

Bizikidetzako:	
Ez da mendekotasuna duen pertsonarekin bizi	0
Mendekotasuna duen pertsonarekin bizi da	5
Lan-egoera:	
Beste batzuk	1
Etxetik kanpo lan egiten du	2
Etxeko lanak egiten ditu, ikasleak edo erretirodunak	3
Eszedentzian	4
Lana utzi du	4
Zainketen iraupena:	
Sei hilabete baino gutxiago	0
Sei hilabetetik 2 urtera bitarte	1
2 urtetik 5era bitarte	2
6 urte baino gehiago	5
Osasun arazoak:	
Osasun arazorik ez du	0
Zainketarako ezgaitzen duten edo zainketarekin larriagotzen diren osasun arazoak	3
Ospitaleratzea	3
Ezarririk tratamendu psikiatrikoa	3
Zarit eskala:	
0tik 45 puntura	0
46tik 54 puntura	2
55 puntu baino gehiago	3
Adina:	

22 eta 59 urte bitarte	1
21 urtetik beherakoa	2
60 eta 70 urte bitarte	2
71 eta 84 urte bitarte	3
85 urtetik gorakoa	5

1.4. Zaintzailerik gabe, zainketak gainbegiratu gabe edo ustez tratu txarrak jasotzen:

Zaintzailerik ez du, ez du zainketak gainbegiratzea onartzen edo tratu txarren presuntzioa dago	25
---	----

2. Etxebizitza.

2.1. Etxebizitzarekin. Ohiko etxebizitzaren edukitza-erregimena (bat hautatu):

Eskatzailearen jabetzakoa	0
Familia unitateko kide baten jabetzakoa	1
Beste senide batzuekin partekatutako jabetza (ezkontidea barne)	1
Etxebizitzaren erabilera eta gozamina	1
Tutoretzapeko etxebizitza edo egoitza	2
Alokairua	2
Pentsioa	3
Ostalaria	3
Azpierrenta	3
Bizigarritasun baldintzak, hornikuntza eta eraikuntza-oztopoak (bat hautatu)	
Oinarrizko hornikuntza eta ekipamendua dauzka, gutxieneko bizigarritasun baldintzak betetzen ditu eta ez dauka eraikuntza-oztoporik	0
Bizigarritasun baldintzak betetzen ditu, baina eraikuntza-oztopoak daude eta/edo hornikuntza falta da	3
Gabezia larriak daude bizigarritasun baldintzei, oinarrizko hornikuntzari eta/edo eraikuntza-oztopoei dagokienez, eta gaindiezinak dira.	5
Osasuna baldintza dezaketen bizigarritasun baldintzak, hornikuntza edo oztopoak	8
Irisgarritasuna (bat hautatu)	
Etxebizitza toki onean dago, komunikabideetara eta zerbitzuetara ongi iristeko moduan	0
Etxebizitza hirigunean dago (hiria/herria), baina mugak daude komunitatearen zerbitzuetara iristeko	4
Etxebizitza toki isolatuan dago, komunikabiderik ez dago eta komunitatearen zerbitzuetara iristeko zailtasun handiak daude	8

2.2. Etxebizitzarik gabe:

Etxebizitzarik ez dauka, ezta hori ordaintzeko baliabiderik ere	19
---	----

3. Egoera ekonomikoa.

Unitate ekonomikoa. Per capita errenta (bat hautatu):

Diru-sarrerak IPREMaren %130 baino handiagoak	0
Diru-sarrerak IPREMaren %101etik %130era bitartekoak	2
Diru-sarrerak IPREMaren %71tik %100era bitartekoak	5
Diru-sarrerak IPREMaren %41etik %70era bitartekoak	10
Diru-sarrerak IPREMaren %40 baino txikiagoak	15
Baliabide ekonomikorik ez dauka	18

4. Arreta soziosanitarioa.

4.1. Jasotako zainketa formalen balorazioa (bat hautatu):

Bere beharretara egokitutako laguntza formal nahikoa jasotzen du	0
Baliabideen beharra hauteman da eta horiek lortzeko aukera dago	5
Zainketen beharrek zaildu egiten dute laguntza formala etxebizitzan ematea	7
Egoera iraenezina bere ohiko ingurunean	10

4.2. Jasotako zainketa informalen balorazioa (bat hautatu):

Ez dago inolako zailtasunik arretarako. Jasotzen duen arreta egokia eta nahikoa da	0
Zainketarako beharrak.	5
Laguntza mugatuak.	7
Aldian aldiko arreta egokia jasotzen du, baina ez da nahikoa	7
Familia zuzenik edo gizarte sarrerik ez dauka	10
Familiak amore eman du	10
PUNTUAZIO OSOA	

II. ERANSKINA. ZARIT ESKALA

Zarit eskala, zaintzailearen gainkargari buruzkoa (Caregiver Burden Interview).

ITEMA	EGIN BEHARREKO GALDERA	PUNTUAZIOA
1	Zure ustez, zure senideak benetan behar duena baino laguntza gehiago eskatzen du?	
2	Zure ustez, zure senideari eskaintako denboraren ondorioz ez duzu zuretzako denbora nahikorik?	
3	Urduri jartzen zara senidea zaintzeaz gain beste ardurak batzuk dituzunean?	
4	Zure senidearen jokaerak lotsatzen zaitu?	
5	Haserretzen zara senidearengandik gertu zaudenean?	
6	Zure ustez, egungo egoera kaltegarria da lagunekin eta familiako beste kide batzuekin duzun harremanerako?	
7	Zure senidearen etorkizunak beldurtzen zaitu?	
8	Zure ustez, senidea zure mende dago?	
9	Senidearekin egon behar duzunean larritzen zara?	
10	Zure ustez, zure osasuna ahuldu da senidea zaintzearen ondorioz?	
11	Zure ustez, nahiko zenukeen bizitza pribaturik ez duzu senidea zaintzeagatik?	
12	Zure ustez, zure senidea zaindu behar izateak zure bizitza sozialari eragin dio?	
13	Senidea dela-eta, deseroso sentitzen zara lagunak etxera gonbidatzeko?	
14	Zure ustez, zure senideak zu nahi zaitu hura zaintzeko, zu ez beste inor ez baitu aintzakotzat hartzen?	
15	Zure ustez, ez duzu behar adina diru gainerako gastuak ordaintzeaz gain senidea ere zaintzeko?	
16	Zure ustez, ezin izanen duzu senidea denbora luzeagoz zaindu?	
17	Zure ustez, zure bizitzaren kontrola galdu duzu senidea gaixotu zenetik?	
18	Nahiko zenuke beste pertsona batzuk arduratzea zure senidea zaintzeaz?	
19	Zure senidearekin egin beharrekoari buruz zalantzak dituzu?	
20	Zure ustez, gehiago egin beharko zenuke zure senideagatik?	
21	Zure ustez, senidea zaintzen duzuna baino hobeto zain zenezake?	
22	Orokorrean: karga handiegia da zuretzat senidea zaindu behar izatea?	

Item bakoitzaren puntuazioa (denak batu emaitza lortzeko)

MAIZTASUNA	PUNTUAZIOA
Behin ere ez	0
la inoiz	1
Batzuetan	2
Askotan	3
la gehienetan	4